

Ana Urchueguiak alkatetza utziko du

- Lasarte-Oriako zinegotzi eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izango da Txile eta Perun
- Astearteko prentsurrekoan, Jesus M. Zaballos kidea aurkeztu zuen bere ordezkoko bezala

Ana Urchuegia alkatea datozen hauteskundeetan ez zela hautagai izango uste zuten herritar askok, eta zurrumurrua egia bihurtu zen asteartean.

Urchueguiak, bere partiduko kideen laguntzaz, eskaini zuen prentsurrekoan bere etorkizunari buruzko asmoak aurreratu zituen: Lasarte-Oriako alkatetza utzi eta Eusko Jaurlaritzak Txilen duen ordezkari izan lan egingo du.

"Ez dut honi buruz ezer arraroa agertzirik nahi. Lehendakariak deitu zidan Txile eta Perun ordezkari lanak egiteko eskainiz," adierazi zuen Ana Urchueguiak.

Erroka berri hau garrantzitsua dela azpimarratu eta urte hauetan lortu duen esperientzia "lehendakariak eskatu didan lanean" oso baliagarria izango dela aitortu zuen, "bertan dauden eskual enpresak sendotu eta herrialde horietako instituzioekin harremanak izateko".

Honetaz gain, Eusko Jaurlaritzan gobernu berria eratu zenetik hainbat proposamenei ezekoa eman ziela jakin arazi zuen alkateak.

Eta hurrengo hauteskundeetara aurkezteko asmorik ez zuela ere aipatu zuen. "31 urte



Ana Urchuegia alkateak eta Jesus M. Zaballos, bere ordezkokoak, alderdi kideen babesa izan zuten asteartean.

daramatzat herriaren alde lan egiten, nere bizitzaren erdia baino gehiago eta hurrengo hauteskundeetara ez aurkeztea erabakia nuen," argitu zuen Urchueguiak.

Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik lehendakariak proposatutako kargua hartzea erabaki zuela azpimarratu zuen Anak: hizkuntzarengatik, kudeaketan duen esperientziarengatik edo bere burua gai ikusten duelako, esate baterako.

Zinegotzi gisa segituko du

Hala ere, inork susmo txarrik ez izateko eta erabakitzeke dauden kontu batzuk itxi arte, hala nola, inbetsio planaren aurkezpena edo Somotoko ikerketa, zinegotzi bezala jarraituko duela nabarmendu zuen.

"Txilen egongo naiz, baina behar izanez gero, hona etorriko naiz. Gainera, batzordeko kide izango naiz. Ez dut erantzukizunik saihestuko," adierazi zuen.

Era berean, bere alderdikideei laguntzeko prest agertu zen alkatea: "hauteskundeetan hemen egongo naiz."

Eskerrak eta oroitzapenak

Eskerrak eman zizkien herritarrei, "hainbeste urtetan guregan konfiantza izateagatik" eta alderdiari "nigan konfiantza izateagatik."

Honetaz gain, alkate lanean egin dituen 24 urte hauetan gauza onak eta txarrak izan

dituela gogoratu zuen, "baina positiboekin geratuko naiz, izan ere, herrian eta herriaren alde egin diren gauzak ugari dira." Honela, lehenengo lanak gogora ekarri zituen, baita Froilan Lesperen hilketa ere.

Alkate aldaketa

Gauzak horrela, hurrengo hauteskundeak arte, Jesus M. Zaballosek, Gazteria eta Jaien batzorde buruak, bere lekua hartuko duela aditzera eman zuen. "Momentua zen, erabakia hartu beharra nuen eta udalbatzan dagoen jendeari lekua utzi," azpimarratu zuen. Aldaketari buruz "jendeak Jesus ezagutzea nahi nuen eta kudeaketa ona egingo duela uste dut," gehitu zuen.

Jesus M. Zaballosek hartu zuen hitza amaieran eta lehenik, eskerrak eman zizkien Ana Urchueguiari eta alderdiko kideei kargu berriengatik.

Ostean, "emakume honek egin duen lana handia izan da bai herriarentzat, baita Euskadirentzat ere. Horregatik, erroka da niretzat eta ilusio handiz hartzen dut izendapena. Taldean konfiantza osoa dut eta Anarekin bezala, lan egitea espero dut," adierazi zuen Zaballosek. •



Zinema sozialaren zikloaren balantze ona egin du Danok Kideak /3

KIROLA /6

Asteburu honetan hasiko da Ostadarrek antolatzen duen Gomazko XVI. Pala Txapelketa



Yoga Acharia (maisua) den Juan Jose Urbietarekin egon gara yogari buruz solasean /5

SUGATE SUKALDEAK



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

Neure kabuz



Zaborra atez ate

Aste bukaera honetan zaborraren biltzea zer erartara egin, aukeratu beharko dute Usurbildarrek boskaren bidez, hain zuzen ere. Atez ateko sistema da lehiatzen dena. Egunero etxetik zaborrak ongi berezitura jarri eta beren ontzietan jasoz kalean biltzea, alegia. Hau litzateke sistema, edo bestea, hau da, kalean jarririk dauden ontzi handietara, nahi dugunean, eta berezitura baita, zaborra botatzea. Zer da hobe? Eta zertarako? Askenean ez al da dena erre beharko? Beraz, nahi edo nahi ez, askenik, erraustegia? Eta zabortegi handiak zer?

Hemen Lasarte-Orian ere gai hau dela eta ez dela, jende asko dago arduraturik. Zabor izugarria eragiten dugu eta gutxitan konturatzen gara, baina hor dago eta zerbait egiten dute guzti horrekin... Nora botatzen dute? Erre agian? Eta zenbat kostatzen da hori guztia? Mila arazo eta galdera, beraz. Egin dira gure arteko batzar ugari, baita manifestaldiak ere, baina ezer gutxi aurreratu dugula, uste dut. Sakonean geure kontzientzia eta jabetzea dago oinarrian. Zertan ari garen konturatzea eta zer nahiko genukeen pentsatzea, baina hau dena ez da erreza.

Okasio polita izan daiteke, orain Usurbilen egin behar dutenaz konturatze-ko eta jarraipena egin, denok ere, gaia gehiago sakondu eta hausnartzeko. Besteengan gertatuarekin ikasi egiten omen da. Hemen ba aukera gehiago ikasteko eta geure erabakiak sakontzeko.

Xabier Andonegi

Zorion-agurrak



Ane

Zorionak gazte! 12 muxu zuretzat eta dozena pasta guretzat. Ondo pasa eta Aupa Erreal!



Uxue

Zorionak printzesa. Iganeko merienda zure kontura, "generosa"! Familiaren partez.



Iraia

Zorionak! Muxu pottoloa 2. urtebetetzean, gurasoak eta anaiaren partetik. Beti pozez.



Ainara

Zorionak! Ondo-ondo pasa eta zerbait utzi biharko! 21 muxu, gurasoen partetik



Arantazu

Ez hadi ezkutatu, aurtuen egunik ez izan arren, urteak betetzen ditun eta! Zorionak!!!



Berta

Zorionak guapa! Ikus-tean pote bat zure kontu! Ondo ospatu asteburuan!



Garazi

Zorionak marimatraka! Merienda zure kontu! Amonaren partetik beriziki.



Marta

Zorionak Marta, Oier edukitzeagatik. Zure gelakoen partetik

Guardiak

- Ostirala, 26**
Rodríguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Larunbata, 27**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Igandea, 28**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Astelehena, 1**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Asteartea, 2**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Asteazkena, 3**
Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567
- Osteguna, 4**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112

Udala

- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Gela bat alokatu nahi dut sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Lasarte-Orian edo inguruan. Pre-sazkoa da. 690 068 365, Iñaki, deitu 19:00etatik 20:00ak bitartean.

• Pisia salgai Iruran. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Berogailua eta armairu enpota-tuak ditu. Harremanetarako telefono zenbakia: 695 785 153.

Salerosketak

• Yamaha Mayesti motorra sal-tzen da. 150 zentrimetro kubiko ditu, garajeen gordetakoak, kutxa eta Pitoi giltzarrapoarekin.

Prezioa 1300 euro, negoziagarria. Harremanetarako telefono zenbakia, 645 635 125.

Lan-eskariak

• Zerbitzaria behar da taberna batean lan egiteko. Harremanetarako telefono zenbakia, 666 461 595.

• Andre gazteak lana egingo luke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanetan laguntzen. Harremanetarako telefono zenbakia: 943 653099, 655 745 512.

• 21 urteko neska euskaldun esperientziaduna astean zehar goizez haurrak zaintzeko edo klase partikularrek emateko prest egongo litzateke, kontaktuan jarri nahi izanez gero telefono honetara deitu: 618019309.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4, 20160 Lasarte-Oria

* Atal honetako oharrak, asteazken eguerdia baino lehen bidali behar dira.

Jaiotzak

Mayi Alvarez Garcia, otsailaren 20an
Angel Noel Sanchez González, otsailaren 11an

Heriotzak

Isabel Velez Romero, otsailaren 19an 48 urte zituela



www.gipuzkoangazte.info

Gazte Informaziorako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea
Tel.: 943 376181

Hezitzaile bat behar da Zarauzko Gaztelekurako

Zarauzko Gaztelekuak, asteburuetan lan egiteko, begirale-hezitzaile bat behar du. Interesatuak bidali kurrikuluma helbide honetara: toldoa_378@yahoo.es.

Urola Kostako Hitzak kazetariak behar ditu lan poltsarako

Eskakizunak honakoak: kazetaritza edo komunikazio zientzietan lizen-tziatua izatea edo ikasketa horietan 3. mailatik aurrera aritzea. Kontutan hartuko da: kazetaritza lanetan esperientzia izatea. Quark X Press programa erabiltzen jakitea. Autoa izatea. Hizkuntzak jakitea. Eskualdea ondo ezagutzea. Diseinu lanak egiten jakitea. Bidali curriculumua urola-kosta@urola-kostakohitza.info helbidera.

Gazte informatzaileak behar da Elgoibarren

Elgoibarko Izarrako Haurrak eta Gazteak Arloak kudeatzen duen udal zerbitzurako Gazte informatzaile bat behar da. Eskakizunak: Unibertsitateko diplomatura, goi mailako batxilerra edo LHIIko ikasketak izatea; herritarra izatea; aisialdian, haurtzaroen zein gazte-riaren alorretan prestakuntza espezifikoak edo eta alor horretan lan eskarmentu akreditatua izatea; EGA titulu edo baliokidea izatea baloratuko da. Eskaintzak berriz hauek: 2010eko iraila arteko lan kontratua, astean 35 orduko lanaldia. Interesatuak curriculumak bidali, martxoak 1 baino lehen, e-posta honetara: aisia.euskaldun-tzen@elgoibarkoizarra.com; Tel.: 943 74 16 26 (Idoia).

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriak ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Udalbatzarrak bat egin zuen Isabel Velezen heriotzaren mozioa gaitzestu eta arazo psikikoen pertsonen egoera salatzen.

Protokolo berria eskatu die Udalak instituzioei arazo psikikoak dituztenentzat

Isabel Velez Romeroren hilketak mespretxagarria "modu aktibo eta sendoan" gaitzetsi eta gertaera honek sortzen duen haserrea azaldu zuen Lasarte-Oriako Udalak astelehenean burututako ez ohizko batzarrean.

Ana Urchueguia alkateak eta Iñaki Mugika alkateordeak irakurri zuten mozioarekin bat egin zuten alderdi guztiek.

Honetan, besteak beste, Isabelen senide eta gertukoekin elkartasuna agertu zion batzarrak, "momentu gogor hauetan gure babesa sentitu dezaten."

Biolentzia

Familia barneko biolentziaren eraginik ikusgarriena heriotza dela aipatu zuten, baina ez bakarria, "gehiegi dira bere senideek eragiten dieten izua-

rekin bizi behar izaten duten emakumeak, autoestimua galdu arte makurtzen eta apaltzen dituztenak."

"Gure indar guztiek babestu behar ditugu, biktimei laguntzeko neurriak eman eta hiltzaileen jazarpena lortu," aipatu zuten.

Sistema berria

Sistemaren huts egitea salatu zuten ere, "instituzioek ez dituzte beharrezko baliabide eta bitartekoak jarri horrelako ezbeharrak saihesteko."

Eta horregatik, Diputazioari eta Udalei premiaz eskatu dio Udalak arazo psikikoa duten pertsonen jarraipen hobea egiteko protokoloak eratzea eta familiei beharrezko laguntza ematea gaixo dauden senideei zaintzeko, "arazo psikikoak dituzten per-

sonekin tratamendua eta harremanak oso zailak direla aitortuz, behar adina protokolo ezarri behar ditugu pertsona hauei eta beren senideei laguntzeko, jarraipen instituzional eta profesional bat egin. Arrakasta osoa ziurtatu ezingo badu ere, babesgabetasun eta errekurtso falta egoerak leuntzen lagundu dezake, tratamendua hobetuz eta jarraipena hobetuz."

Kontzentrazioa

Era berean, herritarrei deialdia luzatu zitzaion astelehenean bertan 11:30ean Udaletxe aurrean kontzentrazioa egitera.

Eta nahiz eta bat bateko deia izan, erantzun handia izan zuen agerraldiak. Pixkanka herritarrak batzen joan eta ehun baino gehiago bildu baitziren. •

Erretiro-pentsioaz IUren bulegoan

CCOOko Eduardo García duarik gabe pilpilean den gai bati buruz aritu zen osteguneko IUKo bulegoan, erretiratu eta gero jasoko dugun ordain-sariari eta PSORen gobernuak iragarri dituen aldaketei buruz. Erretiratzeko adina 65etik 67 urtera pasatzeko asmoa edo eredu pribatizatze ariskua nabarmendu zituen hizlariak. Ricardo Ortega zinegotzia eta Josean Cuesta Michelingo langileen ordezkaria ere izan ziren mahaian eta ikusleen artean besteak beste Antton Carrera legebiltzarkidea.



Ricardo Ortega, Eduardo García eta Josean Cuesta atzoko hitzaldian.

HITZALDIA


Bizkarrezurraren garrantzia osasunarentzat

Gaur, arratsaldeko 19:00etan Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan Juan Alonso kiropraktikoak *La salud a través del cuidado de la columna vertebral* hitzaldia emango du. Berbal-dian bizkarrezurra eta osasunaren artean dagoen lotura aztertuko du eta osasuntsu egoteko, bizkarrezurra egoki zaintzeko dauden moduei garrantzia emango die. •

BERTSO PAPER LEHIAKETA

Uxue Alberdi eta Ane Labaka sari banaketan

Uxue Alberdi eta Ane Labaka bertsolariak parte hartuko dute gaur, goizeko 10:30ean hasita Kultur Etxeko aretoan burutuko den XVII. Bertso paper lehiaketako sari banaketan. Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastoletako hainbat haurrek parte hartu dute lehiaketan eta bertsoren bat aurkeztu duten guztiek orogarri bana jasoko dute. Gainera, ikastetxe bakoitzeko bi lan onenek jasoko dute saria, lehen hezkuntzako onenak, 10 eta 12 urtera bitartekoak, eta DBH Bigarren Hezkuntzako onenak, 12 urteik 16 urtera bitartekoak. Lehenengoek bi gai zituzten aukeran: "Gustuko al duzu ingeleza" eta "maitemindu egin zara". 12-16 urte artekoek ere beste bi, "Zer amestu zenuen bart" eta "Irakasleak txuletarekin harrapatu zaitu". Sari berezi bat ere jasoko du lanik gehien aurkeztu duen gelak. Beraz kalitatearekin batera kantitatea ere sarituko da. Gaurko sari banaketan, herriko ikastoletako haurrekin batera, Uxue Alberdi eta Ane Labaka bertsolariak ere izango dira kantuan.



Astelehenean, Jose Javier Fernandez herritarrak arteari buruz hitz egin zuen.

Zinema sozialaren zikloari buruz balantze ona egin du Danok Kidek

Lehenengo astelehenean, *La joven de la perla* filma eta artea eta gizartea aztertuz, Danok Kidek, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz, antolatu duen Zinema sozialeko VI. zikloari amaiera eman zitzaion.

Herri guztiari irekia dagoen ekimena honetara, 80 eta 90 pertsona inguru hurbildu dira saio bakoitzera.

"Aurtengo edizioak saio bat gutxiago izan du, egoera ekonomikoa dela medio," eta hala ere, irakurketa ona egin dute antolatzaileek ziklora hurbildu diren ikusleen adierazpenak, hala nola, "asko gozatu dugu eta motza iruditu zaigu" edo "filmak eta hizlariak ongi aukeratu dituzte eta interes handiko zikloa izan da" izan baitira.

Aukeraz baliatu

Hala ere, herritarrek kultura eta gizarte arloan aberasteko aukera honetaz gehiago

baliatu beharko lirakeela azpimarratzen dute antolatzaileek.

"Herritarrengan estimuluak sortu nahi ditugu, gazte zein helduetan. Baina gazte jende gutxi dator eta pena da pelikula onak ikusi eta belau-naldi desberdinek gaiari buruz duten ikuspegia partekatze aukera galtzea," adierazten dute.

Zikloaren helburuak

Danok Kidek 6 urte daramatza zikloa antolatzen, Kultur etxearen laguntzaz, eta zikloan jorratzen diren gaiekiko sentsibilizazioa eta interesa sortzea eta, era berean, gaiek eta honen ondorioak denboran zehar gizartean izan duten garrantzia aztertzea dute helburu.

Horregatik, ildo beretik lanean jarraituko dutela jakinarazten dute, izan ere, "ekimen hau ezin daiteke utzi," adierazi dute. •

2010eko literatur lehiaketa martxan

■ Ipuin eta poesia atalak izango ditu euskaraz eta gazteleraz ■ Lasarte-Oriako idazleentzat sari bereziak izango dira ■ Herriko haurren sariketak hiru maila ditu adinaren arabera

Lasarte-Oriako 2010. urteko literatur lehiaketaren oinarriak argitaratu ditu Udaleko Kultura Batzordeak. XXIV. literatur lehiaketa izango da aurtengoa eta herriko haur eta gazteen mailakoa XXIII.a.

Euskaraz eta gazteleraz sari bana emango da Ipuin eta Poesia ataletan. Gainera herrian eroldaturik daudenek "Lasarte-Oria" sari berezia eskuratzeko aukera izango dute. Sariak 1.000 eurokoak dira sail bakoitzean eta herriko lan onenek 300 euroko saria eskuratuko dute. Beraz 1.000 euroko lau sari izango dira eta 300 euroko beste lau, ipuin eta poesian, euskaraz eta gazteleraz. Aurreko urteetan sarituak izan diren pertsonak ezingo dute berriro saria jaso zuten sailean parte hartu.



Idazle ugari hartu du parte aurreko urteetan herriko literatur lehiaketan. Irudia azkenengo urtetako sari banaketa batetan ateratakoa da.

Maiatzaren 14ra arte

Lanak, 2010eko maiatzaren 14ko eguerdiko 13:00ak baino lehen eraman beharko dira Manuel Lekuona kultur etxeko bulegora. Posta ziurtatuz epearen barruan bidalitako lanak ere onartuko dira (Literatur lehiaketa, kategoria, euskara edo gaztelania, ipuina edo poesia, Manuel Lekuona kultur etxea, Geltoki kalea 18 20160 Lasarte-Oria helbidera).

Lanak, argitaratu gabeak izan beharko dute, argitalexterren batekin argitaratzeko eskaini gabeak eta beste

lehiaketa batera aurkeztu gabeak.

Epaia urrian emango du Kultura Batzordeak izendatutako epai mahaiak eta sariak azaroaren 27an banatuko dira.

Bestalde, herriko gazte eta haurren artean literatur sorkuntza bultzatzeko asmoarekin, XXIII. Literatur Lehiaketa antolatu du Udalak, euskaraz eta gazteleraz, poesia eta ipuina. Lanak aurkezteko epea berbera da. Hiru maila egongo dira adinaren arabera,

(95-96-97an jaiotakoak; 98-99 eta 2000 urtean jaiotakoak; 2001 urtean eta ondoren jaiotakoak). Ipuin lehiaketan maila bakoitzean hiru sari emango dira 150, 112 eta 76 eurotakoak.

Poesia lehiaketan bai euskaraz eta bai erdaraz, 150 euroko sari bakarra izango da

kategori bakoitzean. Haur eta gazteen sari guztietan erdia dirutan emango da eta beste erdia liburuak erosteko txartel batean.

Ipuinak gehienez 10 orrialdekoak izango dira eta poemak gutxienez 300 bertso lerrotakoak. Haurren mailetan ipuinak 2, 4 eta 8 orrialde-

koak (adinaren arabera) eta poesian txikienez 50 bertso lerrokoak aurkeztu behar dituzte eta beste guztiek 75 lerrokoak.

Idazlanak hirukoizturik aurkeztu behar dira, hiru kopian alegia, alde bakarretik tarte bikoitzaz mekanografiatutako foliotan. Idazlanek izenburua bakarrik edukiko dute, ez da egilea antzemateko beste xehetasunik agertuko. Egilearen datuak kartazal itxi batean ipuinarekin batera utzi beharko dira. •

“ Herriko gazte eta haurren artean literatur sorkuntza bultzatzeko asmoarekin antolatu da lehiaketa

Aste Santuan Txokoak 3-9 urteko haurrentzat

Aste Santuan aurreko elkarrekin jolasteko aukera izango dute herriko txikiak.

Bi astez jai hartuko dute ikastolan eta gurasoekin oporretara ez doazenei Aste Santuko Txokoei esker ongi pasatzeko eta gozatzeko aukera paregabea eskaintzen die herriko atera gabe Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordearen laguntzarekin.

2001 eta 2007 urte artean jaiotako haurrek izango dute Txoko hauetan parte hartzeko aukera, martxoaren 29tik 31ra eta apirilaren 6tik 9ra. Azken egunean, apirilaren 9an txikiak, 3-5 urte artekoak txiki parkera joango dira eta 6-9

urte artekoak aldiz, Zarautzera irteera egingo dute bi egunetarako. Disko-festa, kometen hegaldiak, hainbat ekintza burutuko dituzte bertan.

Aipatutako egunetan Goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:30ak arte jolasean aritzeko aukera izango dute Txokoetan izena ematen dutenek. 80 euro ordaindu beharko du haur bakoitzak baina Amaraun ludotekan matrikulatuen ehuneko 10eko beherapena izango dute. 2001 eta 2007 urte artean jaiotako haurrentzat irekia dago matrikula epea martxoaren 24ra arte. Dena den plazak mugatuak dira eta bizkor ibiltzea gomendatzen du Ttakun elkarteak. Informazio gehiago



Umeek aste santuan elkarrekin jolasteko aukera dute. Martxoaren 24ra arte dago epea zabalik. Plazak mugatuak dira.

nahi izanez gero Ttakun Kultur Elkartearen egoitzatik edo Amaraun ludotekan jaso daiteke. Edo 943 371448 telefono zenbakira deitu.

Aste Santuko egun horietan hainbat jolas eta tailer egingo dira. Txikienez beste beste eskulanak, herri kirolak, sukaldaritza, altxorraren bila eta

beste hainbat jolas egingo dituzte. Handiagoek, olinpiadak, kometak, bizikleta ibilaldia, tailerrak, futbolen erraldoia eta beste hainbat joko. •

Juan Jose Urbieta Yoga Acharia (maisua) Lasarte-Oriako Sanatana Dharma eskolan

‘Norberarekin ondo egoteko modua da yoga’

■ Pertsona puntu puntuan jartzeko teknika batzuen sintesia edo batura dela dio ■ Erljioekin alderatuz, ongi-izatea metodologia jakin baten ondorioa da, ez dago suerte edo graziaren baitan

Juan Jose Urbieta, Yogako maisua da eta Lasarte-Oriako Sanatana Dharma eskolako orientatzaile eta arduraduna. 1985. urtean beheraldi bati aurre egiteko hasi zen yoga egiten, 1991ean lortu zuen yoga irakasle diploma eta ordutik ari da aipatutako eskolan. 2006an izendatu zuten yoga maisu, beronen zabalkundearen egindako ibilbidea eta lana aitortzeko.

JON ALTUNA

Zestoan jaio zen Juan Jose Urbieta, baina txikitatik Zumaian bizi da. 1997tik Zumaburuen martxan den yoga eskolako irakasle eta orientatzailea da. Yoga zer den eta eskolan egiten dutena azaldu dizkigu. "Egia esan ez da erraza azaltzeko. Norbera bere buruarekin bat ondo egoteko modua da. Horrela, bizitzan ere ondo egotea lortu dezakezu, ondo bazaude ondo mol-datuko zara. Gauza asko dira, alde batetik filosofia, baita bizitzan segitzeko teknika pila bat ere, baina azken finean sintesia da, hau da, horiek denak elkar-tu eta bizitzarekin bat datorren egoera orokor bat lortzea".

Nondik dator yoga?

Erantzun azkarrena Indiatik datorrela esatea da, jakina, baina gizakiarekin batera datorrela esaten dut nik. Teknika ortodoxoak, urte askotan, Indian egon badira ere, gizakiak, lehenengo aldiz, ondo zetorkion zerbait egin eta ondo sentitu bazen, esan daiteke yoga teknika bat erabiltzen ari zela. Indian urte askotan erabili dute, baina ez nuke esango indiarrena denik edo handik datorrenik, baizik eta oro har gizakiena dela.

Zientzia dela esaten duzue...

Galdera oso interesgarria da, zeren beste erlijio batzuetan ongi izatea suerte bat bezala ikusten da. Guk, aldiz, hori metodologia baten barruan dagoela diogu, gauzak ondo egiten badituzu, ondo aterako direla. Akzioa eta erreakzioa, metodo zientifikoa, beraz. Hau da, arnasketak ondo lantzen baldin badituzu, erlaxatu eta lasaitu egingo zara, ondo izango zara, alegia. Hor ez dago inolako graziarik.

Zuen helburua zientzia hau zabaltzea eta zabalduko duten pertsonak prestatzea da, ezta? Bai. Niretzako pertsonalki, yoga funtsezkoa izan zen, aurretik bat nintzen eta ondoren beste bat. Askori gertatu

zaie hori. Eta beti galdetzen da, nola eskertu hori? Ba beste-teei erakutsita edo azalduta. Azken batean niri ondo etorri zaidan gauza bat besteei ere ondo etorriko zaie.

Maisuek urte askotako prestakuntza izan al duzue?

Ni yoga egiten hasi banintzen niretzako izan zen. Bost urtez aritu eta gero, maixuak esan zidan: zergatik ez zara maisu bezala prestatzen? Nik ez neukan horrelako pentsamendurik ez gogorik, ondo zetorkidan eta kitto, baina animatu egin ninduen, urte beteko ikastaro bat egin, (bost urte neramatzan jada yoga egiten) eta horrekin instruktorea edo irakaslea nintzen. Baina maixua beste maila batean dago, berez, maixuak izendatzen ditu beste maixuak. Ez da titulu bat, urtetan zehar aritu behar duzu lortzeko, urte-tako prestakuntza eta bokazioa da. Duela gutxi, lana bilatzeko ikastaro bat egin nahi zuela esanaz etorri zitzaidan neska bat, eta desanimatu egin nuen. Hau ez da ogibide bat bokazioa baizik. Ikasten baduzu instruktore izango zara, baina ez oraindik maixua.

Zer eskaintzen du herriko yoga eskola eta taldeak?

Yogak nolabait esateko maila ezberdinak ditu, lehenengoa osasun yoga da. Dena den, ez digute osasuna aipatzen uzten, "paria" bezalakoak gara, ez gara osasun gunea, ez gara erlijio gunea, ez gara eskola gunea, horiek denak betetzen ditugu baina ezin dugu esan. Askok etortzen dira medikuek eurek yoga egiteko esanda. Beraz, psikoterapia lana egiten dugu, hobeto sentiarazteko hainbat teknika erabiltzen ditugu, denon artean gauza asko ikasten ditugu, baina eskola ere ez da. Ez da baina horretan aritzen gara.

“ Ez dut aholkurik ematen, ikusten laguntzen diet. Psikoterapeuta baino, orientatzailea naizela uste dut



Juan Jose Urbietak hogeit hiru urtetan yoga eginda lortu du maisu izendapena.

Norbera fisikoki, mentalki eta emozionaliki hobeto sentitzea da helburua, ezta?

Eta espiritualki. Hitz hori gaur egun agian zaharkitua geratu da, baina horrela da.

Eta zer lantzen duzue?

Arnasketak, gorputzaren posturak, (postura ez da gimnasia, hori baino gehiago da), gorputz fisikoa, gorputz mentala, emozionala eta espirituala lantzen dira kontzientziaren bidez. Arnasketak eta erlaxazioekin batera badira beste teknika batzuk, garbiketak, urtean behin egiten dugu hesteen garbiketak, guk ez ditugu egiten baina baraualdiak ere badaude yogaren barruan, teknika psikologikoak ere bai... Azken finean doikuntza bat da, puntu-puntu jartzeko.

Yogarekin batera, meditazioa ere egiten duzue, ezta?

Yoga berez meditazioa da. Gauza bera da. Yoga egoera bat da, meditazioaren bidez lortzen dena. Hori lortzeko, lagungarri diren teknika asko daude.

Eta erlaxazioa, zer da?

Beste teknika bat da. Askotan yoga lasaitzeko teknika bezala ikusten da, baina oreka lortzeko sistema da. Oso estresatuta daudenei erlaxatzea ondo datorkie, baina oso lasai daudenek bizkortzea behar dute, yogaren bidez euren egoera bizitzea.

Jende asko etortzen al da eskolara?

50 lagun inguru urtean zehar. Batzuk joan eta etorri egiten dira. Baina badira beste batzuk, duela ia 20 urte, 1991an, nirekin batera hasi zirenak. Nire maisua beste lokal batean hasi zen, eta harekin hasi zirenak eta segitzen dutenak ere badaude.

Hasiberrientzat ikastaroa doan eskaintzen duzue?

Bai promozio gisara, hilabetean probatzeko aukera ematen dugu.

Zestoan Sanatana Dharmaren beste zentro bat da, ezta?

Zestoan gure maisuak dauka zentroa. Sarri egoten naiz han. Bakoitzak bere lana egiten du. Han, formazio sendo-agoa eskaintzen da, irakasle izango direnentzat. Han ikasi nuen nik, han daude aitzindariak. Lan sakonagoa egiten da, toki askotatik joaten dira irakasleak. Duela gutxi egin dugu bisita bat lasarteoriatare-reek hura ikusteko.

Zergatik da ona yoga?

Lehen esan dugun bezala, ondo egotea lortzen baduzu, nabaritzen da gero, sendian, lantokian, lagunartean... Puntu-tuan jartzen bazara, gero horrek edozentzarako balio du. Gizarte honetan oro har jendea oso juxtu dabil. Edozer gauza gertatzean puskatu egiten dira. Eta zer esanik ez medikazioaren aldetik. Askok dopatuak etortzen dira eta isil-isilik egoten dira...

Posible al da teknika hauekin botikak gutxitzea?

Ni neu ere, beheraldi handi batekin nintzen, eta ez dakit zer eta nolako izango zen bestela nire bizitza, baina segur aski dopatuta ibiliko nintzen denboraldi batean. Bai, jende askok hobetu du egoera.

Profesionalki aritzen al zara honetan?

Ordu gehienak psikoterapia joaten zaizkit, ordu bete bakoitzarekin. Arazoak dituen jendearekin.

Aholkuak emanaz, beraz?

Ez, terapeuta txarrena aholku-terapeuta da. Ikusten laguntzen diet. Begiratu zer arazo duten eta jabetzen lagundu. Bati edo besteari galdetu egin behar izaten diet, zer espero duzu nigandik? batek zera erantzun zidan, "nire arazoak konponduko dizkidan jakintsu bat behar dut". Esan nion oker zebilela, ni izan nintekeela nahikoa bihurri ausartzen ez zen tokietan begira arazteko, baina hortik aurrera... Ez, aholkuak bere arriskua dute, zerbait esan eta oker ateratzen bada... berak ikusi behar du. Psikoterapia hitza baino orientatzaile hitza dut gustukoa. •

Kiroletako oharrak

6 Nazioak Errugbyko porra

Beltzak Errugby taldeak 6 Nazioak lehiaketako porra antolatu du.

Sailkapeneko 6 postuak asmatzen dituztenen artean, Jalai tabernan bi pertsonentzako afora eta Zigako landa-etxean 2 pertsonentzako asteburu pasa zozketatuko dira.

Martxoaren 13ra arte dago porra egitea, hau da, 4. jardunaldia jokatu baino lehen.

Aldatzekua, Txema taberna, Gure etxea, Insausti, Ilargi, Jalgi, Txanpa, Xirimiri eta Uda-berri tabernatan porrako txartelak eskuragarri daude.

Ostadarren federatzeko aukera

Ostadarreko zikloturista taldeak martxoan hasiko du denboraldia.

Taldean parte hartu nahi duen orok, Ostadarreko egoitzean, Geltoki kalean 25. zenb., izena eman dezake eta federatu daiteke.

Era berean, mendian federatu nahi duen mendizale edo mendi krosetako korrikalariak edo horretarako informazioa nahi duenak kirol fundaziara jo edo 943 360 433 zenbakira deitu dezake.

Zortzi bikote Gomazko XVI. Pala Txapelketako lehian

Sei aldiz txapeldun izan diren Iñigo Arluziaga eta Oskar Lazkano garaitu beharko dituzte Ostadarrek antolatzen duen txapelketako saria eskuratzeko

Asteburu honetan emango dio hasiera Ostadarrek antolatzen duen Gomazko pilotako XVI. Pala txapelketari.

Lehiaketa honen helburua kirol modalitate hau herrian sustatzea da, gazteenek kirol hau ezagutu eta jolasteko. Horretarako parte hartzen duen bikote bakoitzetik behintzat bat herrikoa izan behar du, nahita nahiez.


Ilido hori jarraikiz, ohitura mantentzeko, finalurrekoak eta finala zuriz jokatzen dira.

Lehiaketa sistema

Aurten bikote kopuruak behera egin du, zortzi bikote izango dira lehian.

Antolatzaileen adierazi digutenez, bikoteak multzo bakarrean lehiatuko dira eta partidak 30 tantora izango dira.

Era honetara, ligaxka egingo dute, guztiak guztien aurka. Hirugarren eta laugarren postuak eta final nagusi



Asteburu honetatik aurrera, gomazko pilota txapelketako norgehiagokak ikusteko aukera Kirol Guneko pilotalekuan.

sia maiatzaren zortzian jokatuko dira.

Partida guztiak, kirol guneko frontoian jokatuko dira, larunbatetan 15:00etatik aurrera eta igande goizean 9:00etan hasiko dira.

Iazko txapeldunak garaitu

Txapelketara aurkeztu diren bikoteen artean, iazko bikote txapelduna dago, Iñigo Arluziaga eta Oskar Lazkano.

Txapela sei alditan eskuratu duen bikote honek, berriro

ere, garaipena eskuratzeko aukera du.

Baina ez dute erraza lortuko, beste zazpi bikoteak gogor saiatuko baitira maiatzaren 8an jokatuko den finalen postua lortzeko. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 27

- 11:30ean, Añorga-Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Rezola, Donostian.
- 13:45ean, Antiguoko-Ostadar (Infantil txikiak, txapeldunen fasea) Berion, Donostian.
- 15:30ean, Martutene-Ostadar (Erregional Gorena) Martutenen, Donostian.
- 15:45ean, Texas Lasartearra-Urki (I. Erregionala, kopa) Michelinen.
- 17:30ean, Ostadar-Santo Tomas Lizeoa (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.
- 19:30ean, Ostadar-Euskalduna (I. kadetea, igoera fasea) Harane, Usurbilen.

Igandea 28

- 10:00etan, Ostadar-Segura Goierri (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.
- 10:30ean, Antiguoko-Ostadar (Alebinak, txapeldunen fasea) Berion, Donostian.
- 11:30ean, Ostadar-Idiazabal (I. Jubenila, kopa) Michelinen.
- 11:30ean, Mutriku-Ostadar

(Partehartze infantilak, kopa) San Miguel, Mutriku.

FUTBOL 7

Larunbata 27

- 20:30ean, Trebol-Spartak de Obelix (III.maila) Ugaldetxo, Oiartzunen.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 27

- 18:00etan, Goierri-Aldaz H.K. (Nazional B maila) Aldiri kiroldegia, Urretxun.

Igandea 28

- 12:15ean, Azitain Erretegia-ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Ipurua kiroldegian, Eibarren.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelingo areto-futboleko gunean

Ostirala 26

- 20:30ean, Izarra-Lekuona Mena

Larunbata 27

- 10:15ean, Epel-Okela

- 11:15ean, Buenetxea-ISU Lei.
- 12:15ean, Oria kris.-Ainhua
- 15:00etan, Obelix- Mingallon
- 16:00etan, IOB H.K.-Ilargi
- 17:00etan, Goiz Argi-Mosrrison

Igandea 28

- 10:00etan, Izkiña-Biyona
- 11:00etan, Tragoxka Naiban

SASKIBALOA

Larunbata 27

- 18:00etan, Take Orbela-Jalai (Gizonezko seniorra) Usabal kiroldegia, Tolosan.

JUDO

Larunbata 27

Egun osoan, LOKEko Josu Olmos, Esteban Martinez, Abayuba Gutierrez eta Mario Garrido Kadete mailako Open Nazionalen lehiatuko dira, Fuenlabradan, Madril.

IGERIKETA

Larunbata 27

Egun osoa, Buruntzaldeko Igei-

keta taldeak Gipuzkoako Infantil, Junio, Senior eta Promesen Neguko txapelketan parte hartuko du, Bergaran.

Igandea 28

Egun osoa, Buruntzaldeko Igeiketa taldeak Gipuzkoako Infantil, Junio, Senior eta Promesen Neguko txapelketan parte hartuko du, Bergaran.

ATLETISMO

Larunbata 27

- 17:00etan, LOKEko atletek Par-taidetza Mugagabeko proban parte hartuko dute, Anoetako Belodromoan, Donostian.
- 20:15ean, Iñigo Sevillano Real Sociedad-Krafft taldeko atletak Espainiako txapelketako 60 metro hesiekin probako sailkapenen lasterketan parte hartuko du, Valentzian.

PILOTA

Larunbata 27

- 16:00etan, Bergara-2Intza I (Eskuz binaka, alebinak 2.urte) Bergaran.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 27

16:30ean, Buruntzazpi txirrindulari taldeko Xuban Errazkin, Luis Sobejano, Luken Carbayedo, Oier Larrea, Iñigo Altuna eta Oier Odriozolak Hondarribiako saria lasterketan parte hartuko dute Hondarribian.

PALA

GOMAZKO PILOTA XVI. TXAPELKETA Michelingo pilotalekuan

Larunbata 27

- 15:00etan, Josu Iparragirre eta Koldo Rozas-Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga
- 15:45ean, Imanol Bardaji eta Agustin Zubizarreta-Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga

Igandea 28

- 09:00etan, Iñigo Huegun eta Haritz Urdanpilleta-Asier Munduate eta Beñat Pagoaga
- 10:00etan, Iñaki Lizaso eta Joxerra-Xabier Arteaga eta Jonpe Artetxe

Egunero

Erakusketa

LASARTEKO AUTO-ZIRKUITUAREN ERAKUSKETA, Kutzaren fototekako parte diren 85 argazki ikusgai erakusketa aretoan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Ostirala, 26

Sari-banaketa

XVII. BERTSO PAPER LEHIAKETAREN sari -banaketa egingo da Manuel Lekuona kulturetxean goizeko 10:30ean. Saioan Landaberri ikastolako eta Sasoeta-Zumaburuko gazte-soeokin batera, Uxue Alberdi eta Ane Labaka bertsolariak ere izango dira kantuan.

Hitzaldia

LA SALUD A TRÁVÉS DEL CUIDADO DE LA COLUMNA VERTEBRAL hitzaldia emango du Juan Alonso kiropaktikoak. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:00etan, GAZTELANIZ



Bizitzaren gorabeherak Rubenen bakarrizketan azaldua

Ruben Arrosidiek bakarrizketa eskainiko du Xpression eta Gazteria sailak antolatzen duten Gazte ekimenean.

Ruben antzerkian, zinean eta telebistan lana egin duen Donostiako aktore gaztea bat da. Oraingoan transzendenti handiko gaiak aztertuko ditu, Stand up Comedy ikuspuntu ironiko batetik.

GAUR OSTIRALA, 20:00ETAN
KULTURETXEKO KAFETEGIAN

Kontzertua

U.K. BILL rock taldearen emanaldia. Utikan taldearen errautsetatik, Rafa, Unai eta Iker proiektu berria martxan jarri dute. Jalgi kafe-antzerkian, 23:00etan.



Larunbata, 27

Kontzertua

ANDALUZIARAKO EGUNA ospatzeko kanta eta dantzaz beteriko emanaldia eskainiko dute Semblante Andaluz elkarteak hainbat kideek. Gonbidatu berezia izango da, Amigos del sur taldea. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

DJ emanaldia

SOUND SYSTEM ESTHER musika-riaren eskutik. Batez ere funky, hip hop eta reggae estiloak lantzen ditu. Naiban tabernan, 23:00etatik aurrera.

Igandea, 28

Meza

MEZA ROZIEROA egingo dute, Semblante Rociero abesbatzak abestua Andaluzia eguna ospatzeko. Arantzazuko Amaren elizan, 11:30ean.

Ekitaldia

OHOREZKO ARDOA Semblante Andaluz elkarteak bazkide, lagunentzat eta gonbidatuentzat. Ondoren bazkaria. Semblante Andaluz Elkarteak, 13:30ean.

Ekitaldia

SEMBLANTE ROCIERO ABESBATZAREN emanaldia bazkalosteak. Semblante Andaluz Elkarteak, 18:30ean.

Eskutitzak

Txantxangorria

Txantxangorria pausatu zaio presoari leihuan. Txorrotxioka bazkaloste eguzkitsuak.

Txantxangorria: Txintxarria ekarri dizut. Otsailaren 15a, Askatasun Parkea... ikusi ikusi (irakurri det lasai arraio)

Presoa: Interesantia.

Tx: Duda sortu zait. Euren gain hartu behar dituzte behingoz haiek eraildakoak?

Pr: Ze ironikoa, Txantxa. Esku odoldua lixibaz zuritzen artistak bihotz zuriok! Oroitzen zera Mikel Donostian afusilatuta zutelarik, haren omenaldian zenbat herritar jipoitu zuten Galindoren gizonak Urchueguiarekin eskuz esku?

Tx: Je! Eta Udala erabili zuten gune operatibo gisa!

Pr: Eta eskuz esku... Hernanin hamarnaka herritar afusilatuta zituztenekin inauguratu behar omen dute, zera...

Tx: "Askatasun Parkea".

Pr: Eta zer diozu Inaki eta Argi 1989an heriotzera kondenatu zituztenean?

Tx: PSOEek diseinatu, bai. Dispersioa. Juankar Almerian... Denbora kontua zen. Ondo asko bazekiten, bai.

Pr: Barrionuevok inspiratuko zituen parkearen izenarekin zuk uste?

Tx: Edo Berak, edo Galindok berak. Denak dira kalean eta.

Pr: GAL siglak asmatuta ia hogeitamar euskal herritar erail eta gero.

Tx: Egindakoa euren gain hartzeko ere ez dira gauza.

Pr: Begira Jon. Zer egin ote dute Jon Anzarekin? Non lurperatu ote dute?

Tx: Inpunitatearen eremua. Ene!

Pr: PSOE agintean. Burura datozkit ustelkeria, heroina, ETtak...

Tx: Inpunitatearen eremua zabal zabal.

Pr: Baina Bilbon 44000 buru bihotz. Milaka taupada Askatasunaren Parkeruntz.

Tx: Agur, Polittia. Etorkizuna, herritar antolatuen da. Tiocfaidh ár lá!

Pr: Aio Txantxa. Eman muxutxo bana burkideei, senideei... eta herritarrei: animo!

Salto egin du Txantxangorria. Hegoak zabalik badoa Euskal Herriarantz.

Xabier Lauzirika Agirre

Esazu irratiako programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 en izango gaituzue ostiralero 9:45-11:45

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Liburutegiko ordutegia



Manuel Lekuona kulturetxea

Astehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Oharrak

Exteraten elkarretaraztea

Hileko azken ostiraleroa bezala, Lasarte-Oriako Exteratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Merkatu solidarioa

Martxoaren 4 eta 5ean merkatu solidarioa egingo dute Santa Teresa ikastetxean. Azoka goizeko 09:30etik 13:30era eta arratsaldeko 15:15etik 18:00etara egongo da irekia.

Jasotako dirua bi proiektu hauek ateratzeko izango da: Manos Unidasek Vietnameko Bim Son herriak haur eskola bat eraiki eta hornitzeko eta Fundeok Costa Ricako Coopevega herriaren nekazal emakumeen promozioa sustatzeko.

Udaltzainen jasotakoak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, argazki kamara, urrezko eskumuturrekoa, zilarrezko eskumuturrekoa, Seiko markako bi eskumuturreko erloju, Viaceroy markako eskumuturreko erloju, Massimo Duttii markako eskumuturreko erloju, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, Symbol markako makina, Nokia markako mugikorra, Festina markako eskumuturreko erloju, Suzuki markako motozikleta kasakoa eta zilarrezko belarritakoa.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Marrakiz eta pintura eskolak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakiz eta pintura klaseak hasi dituztela dagoeneko eta oraindik izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Ibon Brit/ Kooperante El Salvadorko Nejapa eremuan

‘Gure herriko erosotasunei ez diegu garrantzirik ematen’

El Salvadorko Nejapa herrialdeak 30.000 biztanle ditu. Gazteen langabezi tasa handia da eremuan eta gazte talde edo maretan sartzeko arrisku handia dute gazteek. Hori ekiditeko hainbat erakundek ekintza ugari antolatzen dituzte gazteentzako etxeetan.

Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oriako Udalak Hego eta Erta Amerikako hainbat herrialdeetan proiektuak ditu martxan. Horietako bat, El Salvadorko Nejapa herrialdean egiten da. Urte hasieran, herriko Ibon Brit gaztea joan zen bertako proiektuan lan egitera. Posta elektronikoen bidez, Ibonekin harremanetan jarri gara proiektuari eta bertan egiten duen lanari buruz gehiago jakiteko.

Zein proiektuekin joan zara Nejapara?

Lasarte-Oriako Udalak bertan Froilan Elesperen izena daraman proiektua du. Lau urteko iraupena du eta hau da, martxan dagoen bigarren urtea.

Lasarteoriatar bakarra zara?

Bai, egia esan proiektu honetan El Salvadorkoa ez den bakarra naiz, baina jendea oso konprometitua dago proiektuarekin.

Zein da egun eremu horretako egoera?

Gaur egun kezka handia dago Nejapa eremuan eta El Salvador osoan maren, gazte taldeen, arteko hilketa kopurua handitu delako, eguneko 16 daude.

Honetaz gain, neskek lehenengo haurra 13 eta 14 urte artean izaten dute, haurren %58,4a ez doa eskolara eta gazteek 16 urterekin uzten dituzte ikasketak.

Eta enpleguari dagokionez, 15 eta 24 urte artean, hiru gazteetatik bi langabezia daude.

“ Nejapan haurren %58,4a ez doa eskolara eta gazteek 16 urterekin uzten dituzte ikasketak

Zein desberdintasun daude gure herriarekiko?

Bi herriek ez dute ezer amankomunean. Hemen ez dago pisuetako etxebizitzarik, etxeek 325 metro karratu dituzte. Hemen ez dago Lasarten izan dezakegun askatasuna, gauean ezin zara etxetik atera maren arriskua gatik edo bestelako erasoak izan dezakezulako.

Gainera, gure herriko erosotasunei ez diegu garrantzirik ematen, hemen ez dago ez garbigailurik, ezta ur berorik ere.

Eta zer esanik ez, kaleetan ikusten den pobrezia handiari buruz.

Proiektu bakarra da?

Bai, baina bere baitan Procomesen, Gobernu kanpoko erakundearen, beste proiektu batzuk daude.

Procomes-ek hemezortzi urte daramatza lanean El Salvadorren eta lan handia egiten du ingurumen hondamendiak sufritu dituzten eremuak berreraikitzen.

Izan ere hemen dagoen orografiatik hondamendi ugari gertatzen baitira.

Laburbilduz, esan daiteke, proiektu gehienak gazteei zuzendutakoak direla, hala ere, herritar guztiei laguntzen saiatzen gara.



Ibon Brit lasarteoriatarra Nejapako gazteekin lan egiten du normalean, baina herritarrekin ere bildu ohi da sarri.

Beraz, gazteak dira proiektuaren funtsa?

Bai horrela da, gazteentzako zortzi etxe daude irekiak, ordenagailu gela dute, batzuk gimnasioa dute, aerobicoko ikastaroa dago batzuetan, masaje zentroa ireki berri dugu, nik zuzentzen dudana.

Larunbata arratsaldeetan haurrentzako filmak ikusgai daude.

Ekimen horien guztien helburua gazteak gauzak egin eta maretan ez sartzea da. Horrelako ekintzak egiten dituzten bitartean, ez dira maren eskuetan eroriko.

Zer egiten duzu han?

Egunero eskola batetara noa eta kirol begirale lanak egiten ditut, 5 eta 14 urte arteko haur eta gaztetxoekin. Jokoak eta, egunaren arabera, futboleko edo saskibaloian aritzen gara.

Arratsaldeetan, 14:00etatik 19:00etara, Nejapako gazteen etxean masaje terapeutikoko zentroan nago. Gero, gazteen egoera hobetzeko eta proiektu desberdinak aztertze bilerak egiten dugu.

Honetaz gain, aldizkari bat ere zuzentzen dut, doanekoa eta Espainiako ligari buruzkoa da. Hemen futbolzaleak dira eta Real Madrid edo Barça taldeen jarraitzaileak.

Beraz, oso lanpetua nabil eta ez dut ia niretzako astirik.

Nolako harrera izan duzu?

Eskertzeko hitzak besterik ez dauzkat.

Procomeseko langileek lehenengo egunetik haien taldeko bihurtu ninduten eta behar izan dudana guztia eman didate.

Nire lana eta ahalegina aintzat hartzen dituzte eta hori da niretzat garrantzitsua.

Zenbat denbora egongo zara Nikaraguan?

Ba egia esan ez dut bueltatzeko datarik, ikusiko da.

Hemen asko dago egiteko eta ez dut bueltatzeko pentsatzen, hemengo egunerokotasunean baizik. •

“ Ekimen horien guztien helburua gazteak gauzak egin eta gazte taldeetan edo maretan ez sartzea da



Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin ireki berri den Masaje terapeutikoko zentroa, Ibonek zuzentzen duena.